



INGURUMEN-IKUSKAPENEN JARDUEREN MEMORIA URTEA: 2020

Dirección de Administración Ambiental
Administrazio-unitatea: Ingurumen-ikuskapena

Aurkibidea

1. Sarrera	2
2. Proiektuen zerrenda	2
2.1.- Proiektua: 2020 IPPC segimendu-ikuskapena.....	2
2.2.- Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapena 2020.....	7
2.3.- Proiektua: ILEen ikuskapena.....	8
2.4.- Proiektua: Ingurumen-erantzukizuna	8
2.5.- Proiektua: Hondakinen lekualdaketa.....	11
2.6.- Proiektua: Igorpenak Etengabea Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea, IPPC instalazioetan	11
2.7.- Proiektua: EAeko metal-mailak kontrolatzea (INOX).....	12
2.8.- Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa.....	13
2.9.- Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa.....	14
2.10.- Proiektua: Zabortegietako hondakinen mugen kontrola	19
3. Emaizak	20
4. Ondorioak	21



1. Sarrera

Memoria honek azaltzen ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Ikuskaritza Zerbitzuak 2020ko ekitaldirako zehaztutako ikuskapen-programari lotuta egindako jarduketak.

2. Proiektuen zerrenda

Jarraian jasotzen dira 2020ko ekitaldian gauzatutako ikuskapen-proiektuen zerrenda, horietako bakoitzaren jarduerak eta emaitzak, eta emaitza horiek aztertzeetik ateratako ondorio nagusiak.

2.1.- Proiektua: 2020 IPPC segimendu-ikuskapena

Erreferentzia: 2020-01

2.1.1.- Jarduketak

465 ikuskapen egin dira, eta horietatik 142 enpresetan egin dira; hau da, aurrez aurrekoak izan dira, eta 323 dokumentu bidezkoak izan dira, ingurumen-zaintzarako planak eta ingurumen-organoetatik errekerimenduei emandako erantzunak egiaztatze aldera. Aurrez aurreko ikuskapenei dagokienez, 124 jarraipen-ikuskapen izan dira (programatuak) eta gainerako 18ak programatu gabeko ikuskapenak izan dira.

Ikuskapenari zegozkion aktak egin dira, eta horiekin lotutako txostenak bidali zaizkie enpresei, baita, beharrezkoa zen kasuetan, errekerimenduak ere.

Era berean, sailaren webgunean argitaratu dira aurrez aurre egindako programatutako ikuskapenei dagozkien txostenak.

2.1.2.- Ondorioak

Ondorio nagusia da in situ ikuskapenen programazioa bete dela neurri handi batean: programatutako 134 ikuskapenetatik 124 instalazio ikuskatu dira modu programatuan. Puntu honetan nabarmendu behar da programatutako 124 bisita-instalazioez gain, programatu gabeko 18 ikuskapen egin direla.

Programatutako ikuskapenak egin ondoren, ikusi da betetze-maila nabarmeneko, hau da, handiko edo ertain-handiko enpresen kopurua 2019an lortutakoa baino txikiagoa dela, atal horretan 80 enpresa baitaude. 33 enpresak dute betetze-maila ertaina eta 11 enpresek, betetze-maila ertain-txikia eta txikia.




Proiektu honi dagokionez, gogorarazi behar da IPPC instalazioen ikuskapena kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen araudian erregulatzen dela. Araudi horretan, era berean, ikuskapen-bisiten aldizkakotasuna ere ezartzen da, jarduera bakoitzarekin loturiko ingurumen-arriskuaren arabera. Ondorioz, proiektu hau urtero jaso behar da dagokion programan.

Jarraian, 1. taulan eta 1. irudian, proiektuaren datu orokorrak adierazten dira. Hain zuzen ere, egin diren programatutako ikuskapenen ondoren ingurumen-baimen integratuetako baldintzak betetzeari dagozkion ondorioak adierazten dira.

ENPRESAK, GUZTIRA	EZ-BETETZERIK GABE	EZ-BETETZEKIN
124	18	106

1. taula. Ez-betetzeak dituzten eta ez dituzten instalazioen kopurua




1. irudia. Ez-betetzeak dituzten eta ez dituzten ikuskatutako enpresen banaketa



2. taulan eta 2. irudian, antzeman diren ez-betetzeen kopurua agertzen da, egin diren programatutako ikuskapenen ondoren, zehaztutako ez-betetzearen larritasunaren arabera.

EZ-BETETZEAK, GUZTIRA	Garrantzi gutxiko ez-betetzeak	Neurrizko ez-betetzeak	Ez-betetze esanguratsuak	Ez-betetze larriak
404	365	37	2	0

2. taula. Ez-betetzeen kopurua, larritasunaren arabera sailkatuta




2. irudia. Ez-betetzeen banaketa, larritasunaren arabera

ARRISKU-INDIZEA (AI)

3. taulan eta 3. irudian, enpresen kopurua adierazten da, arrisku motaren arabera: gutxieneko arrisku-indizea AI=1 da, eta, gehienekoa, AI=5.

GUZTIRA	AI 1	AI 2	AI 3	IR 4	IR 5
124	10	34	61	17	2

3. taula. Enpresen kopurua, arrisku motaren arabera, egin diren programatutako ikuskapenaren ondoren




3. irudia. Instalazioen banaketa, arrisku motaren arabera.

ARRISKU-KATEGORIA (AK)

4. taulan eta 4. irudian, enpresen kopurua adierazten da, arrisku-kategoriaren arabera. Aipatu beharra dago ikuskapen-aldizkakotasuna egindako azken ikuskapenaren osteko arriskuaren arabera ezartzen dela: AK=1, urtean behingo aldizkakotasuna; AK=2, bi urtean behingo aldizkakotasuna; eta AK=3, hiru urtean behingo aldizkakotasuna.

GUZTIRA	AK 1	AK 2	AK 3
124	21	59	44

4. taula. Enpresen kopurua, arrisku-kategoriaren arabera




4. irudia. Instalazioen banaketa, arrisku-kategoriaren arabera

**BETETZE-MAILA**

5. taulan eta 5. irudian, ikuskatutako ikuskapenen betetze-maila adierazten da.

GUZTIRA	ALTUA	ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA	BAXUA
124	56	24	33	8	3

5. taula. Enpresen kopurua, betetze-mailaren arabera



5. irudia. Instalazioen banaketa, betetze-mailaren arabera



2.2.- Proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapena 2020

Erreferentzia : 2020-02

2.2.1.- Jarduketak

IPPC ez diren jarduerak hala ikuskapen Zerbitzuko langileek nola kontratatutako Ingurumen Lankidetzarako Erakundeek (ILE) ikuskatu dituzte, ingurumen-organoak emandako oharpenen arabera. 2020ko ekitaldian 83 ikuskapen egin dituzte ILEek eta 2 ikuskapen Zerbitzuak.


Era berean, aplikatu behar den legeriarekiko desbiderapenak dituzten enpresei dagokien errekerimendua bidali zaie.

Halaber, aurreko urtean egindako ikuskapenen segimendua egin da, enpresen betetze-maila kontrolatu eta gainbegiratzeko xedearekin.

2.2.2.- Ondorioak

2020ko proiektua urtarrilean hasi zen, baina martxotik ekainera bitartean eten egin zen COVID-19ak eragindako alarma-egoeraren ondorioz. 85 ikuskapen egin dira 2020ko abendura arte, urte horretan IPPC ez ziren 190 enpresa ikuskatzea aurreikusita bazegoen ere. Puntu honetan adierazi behar da egiteke dauden ikuskapenak 2021eko urtariletik martxora bitartean gauzatuko direla, eta, beraz, 2020ko proiektua 2021eko martxoan amaituko dela.

2020ko ikuskapenen emaitzak aztertuta, nabarmentzekoa da ikuskapenen % 23an betetze-maila handia/ertain-handia dela, % 46k betetze-maila ertaina eta % 31k betetze-maila ertain-txikia/txikia (ikus 6. irudia).



6. irudia. Betetze-mailaren ebaluazioa



2.3.- Proiektua: ILEen ikuskapena

Erreferentzia : 2020-03

2.3.1.- Jarduketak

Aurreko urteetako ikuskapenetan, kontrolatu egin genituen EAEko atmosferaren esparruan jarduten duten Ingurumen Lankidetzarako Erakundeak, eta, aurten, horien ikuskapenak egiten jarraitu dugu. Guztira, lau ikuskapen egin ditugu.

Era berean, aldaketak erregistratzen jarraitu da, eta alta eman zaie Ingurumena Kontrolatzeko Erakunde berriei. Zehazki, II. mailako bi Ingurumen Kontrolerako Erakunde berri erregistratu dira.

Azkenik, erakundeek zarataren eta bibrazioen kontrolaren arloan duten egoeraren diagnostikoa egin da, horiei buruzko informazioa bilduz eta EAEn kontrol-kopuru gehien egiten dituztenak identifikatuz.

2.3.2.- Ondorioak

Bete egin da hiru ikuskapen egitearen helburua. Azpimarratu beharra dago ikuskapenen emaitzak onak izan direla; izan ere, ILEei jakinarazi zaie administrazioak beraien jarduera gainbegiratzen duela, eta egiaztatu da araudia betetzen dela, fokuen neurketari dagokionez.

2.4.- Proiektua: Ingurumen-erantzukizuna

Erreferentzia: 2020-04

2.4.1.- Jarduketak

2017ko urriaren 30ean, urriaren 23ko APM/1040/2017 Agindua argitaratu zen, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena eta aipatutako agindu horren eranskina aldatzen duena –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 1. eta 2. lehentasun-mailakotzat sailkatuta–.



Aginduan jasotzen den bezala, 1. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak aurrera eramane nahi dituzten jarduerak atzekien ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko finantza-bermea eduki behar dute, urtebeteko epean APM/1040/2017 Agindua indarrean sartzen denetik, hots, 2018ko urriaren 31tik. Bestalde, 2. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak finantza-berme hori eduki beharko dute bi urteko epean; hau da, 2019ko urriaren 31rako.

2019ko urriaren 15ean, urriaren 23ko TEK/1023/2017 Agindua argitaratu zen, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehentasun-mailakotzat sailkatuta–.

2020ko ekitaldian zehar, finantza-bermea jarri behar duten operadoreei beharrezko informazioa eta tresnak eman zaizkie, 26/2007 Legetik eratorritako betebeharrak bete ditzaten. Bestalde, 1. eta 2. lehentasun-mailako operadoreei kontrolak egin zaizkie, eta 3. lehentasun-mailako operadoreak identifikatu dira, informazio-gutunak bidalita.

2.4.2.- Ondorioak

Esan daiteke 2020rako ezarritako helburuak eta xedeak osorik bete direla. Zehazki, 3. lehentasun-mailako operadore guztiei erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko betebeharra eta azken eguna identifikatu eta jakinarazi zaie; 2. lehentasun-mailako operadore guztiek erantzukizunpeko adierazpena (EA) 2019ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu dutela egiaztatu da, eta 1. eta 2. lehentasun-mailako operadoreek aurkeztutako dokumentazioa formalki egiaztatu da.

Ondoren, 6., 7. eta 8. tauletan, operadoreen eta aurkeztutako dokumentazioaren kontrolari buruzko datuak aurkezten dira.



1. lehentasun-mailako instalazioen egoera 2020/12/31n (Derrigortasun-data: 2018/10/31. APM/1040/2017 Agindua)			
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Guztizkoak
IPPC	12	0	12
IPPC eta SEVESO	23	0	23
SEVESO	23	0	23
GUZTIRA	58 (% 100)	0 (% 0)	58

6. taula. 1. lehentasun-mailako operadoreen kontrolarekin lotutako datuak.

2. lehentasun-mailako instalazioen egoera 2020/12/31n (Derrigortasun-data: 2019/10/31. APM/1040/2017 Agindua)				
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Galdaezintasuna GF	Guztizkoak
IPPC	73 (% 89,0)	1 (% 1,2)	8 (% 9,8)	82

7. taula. 2. lehentasun-mailako operadoreen kontrolarekin lotutako datuak.

3. lehentasun-mailako instalazioen egoera 2020/12/31n (021/10/16 ED. Txerrien eta etxeko hegaztien hazkuntza intentsiboko haztegietarako, 2022/10/16. TEC/1023/2019 Agindua)			
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Guztizkoak
IPPC	25	118	143
IPPC Txerri eta hegaztien etxaldeak	0	9	9
A motako meatze-hondakinak dituzten instalazioak	0	0	0
GUZTIRA	25 (% 16,4)	127 (% 83,6)	152

8. taula. 3. lehentasun-mailako operadoreen kontrolarekin lotutako datuak.



Operadoreek erantzukizunpeko adierazpenarekin batera aurkeztu duten dokumentazioari hainbat kontrol egin ondoren, honako jarduketak hauek egin dira:

- 42 errekerimendu, 1.,2. eta 3. lehentasun-maila duten operadoreei bidaliak, aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko/handitzeko.
- 14 errekerimendu bidali zaizkie 2. lehentasun-mailako operadoreei, erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko.
- 130 informazio-gutun, 3. lehentasun-maila duten operadoreei bidaliak

2.5.- Proiektua: Hondakinen lekualdaketa

Erreferentzia: 2020-05

2.5.1.- Jarduketak

2020ko ekitaldian, EAEko operadore zenbaitek egindako hondakin-garraioen 12 ikuskapen espezifiko egin dira, eta 4 ikuskapen Bilboko portuan eta 8 ikuskapen errepidetiko hondakin-lekualdaketatik. Hondakinak lekualdatzen dituzten operadoreei buruzko informazioa eguneratzen jarraitu da, eta mugaz gaindiko hondakinen lekualdaketak egiten dituzten operadoreei indarrean dagoen legeriaren ondoriozko betebeharren berri eman zaie.

2.5.2.- Ondorioak

Programazioa bete da; izan ere, operadoreei nahiz iragaitzazko hondakinei dagokienez programatutako ikuskapen guztiak egin dira.

2.6.- Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea, IPPC instalazioetan

Erreferentzia: 2020-06

2.6.1.- Jarduketak

Proiektuaren harira –proiektuaren helburua da operadoreek eman zaizkien baimenen baldintzak eta IENSEi buruz Ingurumen Sailburuordetzak argitaratutako jarraibide teknikoak zein mailatan betetzen dituzten egiaztatzea–, ezarritako helburuak lortzeko jarraitu beharreko estrategia zehaztea aztertu da. Proiektua bera kudeatzeko administrazio-unitateen artean (INSOren barruan) sortutako taldearen bidez gauzatu da.



Zehazki, laguntza tekniko bat kontratatzeko izapideak hasi dira. Laguntza tekniko horrek lgorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemen (IENS) funtzionamendu egokia ziurtatzeko eta WEX sisteman konfiguratzeko beharrezkoak diren lanak hasiko ditu.

Bestalde, lantaldeak laguntza teknikorako lanak gauzatzeko behar dituen tresnen zati bat prestatu du. Zehazki, IENS duten IPPC enpresen informazioa bildu du, IPPC vs IENS datu-basearen eredu sortu du eta gerta daitezkeen ez-betetze motak zehaztu ditu.

Azkenik, Ikuskapen Zerbitzuak, IPPC 2020 jarraipena ikuskatzeko proiektuaren barruan, 15 operadoreen IENSak aztertu ditu.

2.6.2.- Ondorioak

Programazioa ez da guztiz bete, 2020an laguntza teknikoak lanak kontratatzeko eta hasteko izapideak amaitzeko aurreikuspena ez delako bete.

Hala ere, lehen adierazi den bezala, lantaldeak aurrera egin du laguntza teknikoak lanak egiteko egin beharreko zereginetan, 2021ean hasiko omen direnak.

Bestalde, INSOk ikuskatze-teknikariak, IPPC programatutako ikuskapenen barruan, 15 instalaziotan egiaztatu dituzte IENSEkin lotutako alderdiak. Egiaztapen horiek, nahiz eta ez diren laguntza teknikoak aurreikusi dituenak bezain zehatzak, kasuan kasuko baimenean eta argitaratutako jarraibide teknikoetan jasotako alderdirik garrantzitsuenak betetzen direla bermatu dute.

2.7.- Proiektua: EAEko metal-mailak kontrolatzea (INOX).

Erreferentzia: 2020-07

2.7.1.- Jarduketak

2020ko ekitaldian, metalezko emisio kutsagarriak sor ditzaketen jarduerak identifikatzeko eta identifikatutako industria-jardueren emisioek 102/2011 Errege Dekretuan jasotako kutsatze-kalitatearen helburuak ez betetzera bultzatzen ez dutela bermatzeko, honako jarduketa hauek egin dira:

Metal-isuriak izan ditzaketen ekoizpen-prozesuak dituzten EAEko instalazioak identifikatzeko lanak egin dira. Zehazki, INSOk hainbat administrazio-unitatetan eskuragarri dagoen informazioa bildu da, eta 11 ikuskapen egin dira partikula metalikoak igor ditzaketen instalazioetan. Bestalde, informazio osagarria eskatzeko errekerimenduak igorri zaizkie identifikatutako operadoreei, eta aztertu egin da. Azkenik, atmosferara isuri metalikoak bota ditzaketen 7 industria-instalazioak geolokalizatu dira.



Adierazi behar da identifikatutako zazpi instalazioen erregulazio-egoera aztertu dela. Bost instalaziori erregulazio-egoera zuzentzeko errekerimendua jaso dute, eta horietako lauk hasi dituzte nahitaezko erregulazio-izapideak.

Jarduerak identifikatu direnez, identifikatutako jardueren isuriek 102/2011 Errege Dekretuan jasotako kutsatze-kalitatearen helburuak urratzen ez dituztela ziurtatzeko, airearen kalitateari buruzko lehen kanpaina berehala hastea planifikatu da identifikatutako eremu geografikoetako batean.

Azkenik, ikuskapenen prozedura ezarri da, bai aktari dagokionez, bai hasierako komunikazioari dagokionez.

2.7.2.- Ondorioak

Programazioaren ehuneko handia bete da. 2020an, isuri metalikoak sor ditzaketen EAEko instalazio guztiak identifikatu dira. Identifikatutako instalazioak bi ingurune geografiko zehatzetan daude. Horietako batean, airearen kalitateari buruzko kanpaina bat hasiko da berehala, eta bestean 2021ean egiteko programatuko da.

Azkenik, adierazi behar da 2021ean zehar proiektu horrekin jarraituko dela, helburu zehatz honekin: airearen kalitateari buruzko kanpainak gauzatzea eta baloratzea, eta hala eskatzen duten instalazioetan neurri zuzentzaileak instalatzeko eskatzea.

2.8.- Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa

Erreferentzia: 2020-08

2.8.1.- Jarduketak

Ingurumen-arriskua duten bertan behera utzitako jardueri dagokienez, zazpi ikuskapen egin dira 2020an.

2.8.2.- Ondorioak

2017-2019 aldian, ikusi zen behera egin zuela proiektuan sartzen ziren bertan behera utzitako jardueren espediente berrien kopuruak. 2020an, berriz ere gora egin du bertan behera utzitako instalazioen kopuruak, eta, beraz, 2021ean lanean jarraituko dugu hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketan, jarduerak amaitu ondoren.



2.9.- Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa

Erreferentzia: 2020-09

2.9.1.- Jarduketak


EAEko ingurumenean eragina izan dezaketen abisuen kudeaketari erantzuna eman zaio urteko 365 egunetan, 24 orduz.

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra 470 abisu kudeatu dira eta horietatik eratorritako 83 landa-jarduera egin dira.

Honela banatzen dira abisuak, lurralde historikoaren arabera:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
OHARTARAZPEN KOP.	102	277	91

9. taula. Abisu kopurua, lurraldearen arabera.




7. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen arabera.

Eragindako ingurunearen arabeko banaketa 10. taulan eta 8. irudian adierazten da.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
AIREA	47	179	38
NATURA-INGURUNEA	19	37	19
LURZORUA	29	28	14
URA	7	33	20

10. taula. Abisuen kopurua, lurraldearen eta eragindako ingurunearen arabera




8. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen eta eragindako ingurunearen arabera

Ingurumen-efektuaren arabeko banaketa 11. taulan eta 9. irudian adierazten da.

	Errepideko istripua	Airera eginiko igorpenak	Sutea	Usainak	Hondakin arriskutsuak	Zarata	Lurzorua	Uretarako isuria	Beste batzuk
ARABA	4	27	7	14	7	0	24	6	13
BIZKAIA	2	71	5	103	9	10	24	36	17
GIPUZKOA	1	24	1	13	5	4	10	25	8

11. taula. Abisuen kopurua, lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera



9. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen eta ingurumen-efektuaren arabera



2.9.2.- Ondorioak

EAEko ingurumenean eragina izan dezaketen abisuen kudeaketari erantzuteko helburua bete da, 24 orduz.

Ohikotzat jotzen dira Araban eta Gipuzkoan egindako abisuen kopurua eta ezaugarriak.

2020an gertatutako gorabehereri dagokienez, ikuskapen-baliabide gehienak dedikazio eskusiboan bideratu dira iragan otsailaren 6an Zaldibarren gertatutako gertaeraren kudeaketara. VERTER RECYCLING 2002, S.L. enpresak ustiatutako hondakin ez-arriskutsuen zabortegia eraitsi egin zen, eta, horren ondorioz, hondakinak su hartu zuen. Zoritxarrez, bi pertsona desagertu ziren, eta gertaerak ingurumen-inpaktu larriak eragin zituen ingurunean.

Data horretatik aurrera, agintari eskudunek mota guztietako neurriak hartu zituzten, lehenik eta behin, desagertutako pertsonak baldintza seguruetan bilatzea bermatzeko, eta ingurumenean eta pertsonen osasunean kalte eta inpaktu berriak prebenitu eta saihesteko.

Ingurumenari eragindako kalteak prebenitzeko eta saihesteko neurriei dagokienez, 2020ko otsailaren 10ean, Ingurumeneko sailburuordeak ebazpena eman zuen, eta, horren bidez, larrialdi-neurriak ezarri ziren gertaeraren inguruan. Horrela, airearen kalitatea etengabe kontrolatzea erabaki zen, bai zabortegiaren inguruan, bai Ermua eta Eibarko hiri-ingurunean; AAEEko enpresa bati eskatu zitzaion amiantoaren arloko ikuskapena egiteko, ingurumen-laginak hartzeko eta zabortegiaren ingurunean analisiak egiteko; Uraren Euskal Agentziari/URARI agindu zitzaion neurri osagarri batzuk har zitzala; Segurtasun Sailari eskatu zitzaion eskuragarri dagoen suteen kontrako operatiboari eusteko, badaezpada; jardunean dauden baimendutako gainerako EAEko zabortegien titularrei laguntza eskatu zitzaion, gertaerak eragindako premiazko kudeaketa-premiei erantzuteko; halaber, lan-agintaritzari eskatu zitzaion aholkularitza eman ziezaion EAEko ingurumen-organoari, uralita-zatiak atzeman ziren material irristatuak garraiatzeko eta kentzeko hartu beharreko neurriei buruz, uralita-zatiak bertan modu kontrolatuan metatzen ari baitziren.



Ondoren, 2020ko otsailaren 13an, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak agindua eman zuen, Zaldibarko udalerriko zabortegian izandako lerradurari buruzko premiazko neurriak hartzea erabakitzen zuena. Agindu horretan, premiazko neurri hauek hartzea ebatzi zen:

- Euri-urak, prezipitazio zuzenekoak edo kanpoko arroetatik datozenak hondakin-masa irristatuaren eta irristatu gabekoaren gainera erortzea prebenitzeko neurriak.
- Masa irristatua egonkortzearekin lotutako neurriak.
- Segurtasunarekin, desagertutako pertsonen erreskatearekin edo bestelakoekin lotutako beste helburu batzuetara bideratutako neurri osagarriak.
- Lixibiatuak bildu, garraiatu eta kudeatzearekin lotutako neurriak.
- Zabortegiko gasaren eta sortutako suaren errekuntza kontrolatzeko eta eteteko neurriak.
- Larrialdiko ekintzak gauzatzeko obrako sarbideak, plataformak eta instalazioak irekitzearekin lotutako neurriak.
- Premiazko ekintzei buruzko dokumentuak, ingeniaritza, planak eta proiektuak diseinatzearekin, kalkulatzerekin eta garatzearekin lotutako neurriak.
- Iragazgaiztutako gelaxkaren kanpoaldera irristatu direlako edo mobilizatu behar direlako, instalazioko isurketa-ontzia ez den beste leku edo instalazio batera eraman behar diren hondakinen kudeaketarekin lotutako neurriak.

Aurreko guztiagatik, nabarmendu behar da Ingurumen Sailak eskura dituen neurri tekniko eta juridiko guztiak hartu dituela Zaldibarko zabortegiaren irristatzearekin eta ondorengo sutearekin sortutako egoera konpontzeko. Hona hemen hartutako neurrietako nabarmen batzuk:

- Desplazatutako hondakin-masa egonkortzea, isurketa-ontziaren barruan zein kanpoan.
- Suteak itzaltzea, lurreko nahiz aireko bitartekoekin.
- Desagertutako pertsonak etenik gabe bilatzea, baita COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren salbuespenezko egoeran ere.
- Isurketa-ontzia doitzea bere morfologia egokitzeko eta, ondoren behin betiko zigilatu ahal izateko.
- Segurtasun-andela eraikitzea isurketa-ontzitik kanpo larratutako hondakina kudeatzeko.
- Desgasifikazio-sistema eta horren tratamendua berreraikitzea.
- Lixibiatuak biltzea eta kudeatzea.
- Bestalde, kontrol hauek egiten dira:
- Isurtegiaren egonkortasunaren etengabeko kontrola.



- Inguruneko airearen kalitatearen kontrola.
- Amianto-zuntzaren lan-neurketak.
- Amianto-zuntzaren ingurumen-neurketak.
- Lixibiatuen kontrolak.
- Ibilguko uraren kalitate-kontrolak.
- Edateko uraren kontrolak.
- Laboreen kontrolak.
- Lurpeko uren kontrolak

Bestalde, kudeatutako beste ingurumen-arazo batzuei dagokienez, aurtengo garrantzitsuenak dira Erandio eta Zallakoak. Arazo horiek inguruneko kalitatearen abisuen edo datuen kudeaketatik eratorri dira.

Proiektu horiek garatzean, zenbait bilera egin ditugu eragindako udalekin eta auzo-elkarteekin eta, gainera, Ikuskaritza Zerbitzuko teknikariek eremu gatazkatsuak ikuskatu dituzte hainbat alditan.

IPPCren segimendu-ikuskapeneko proiektuen barruan, segimendu berezia egiten jarraituko da potentzialki abisu eta kexa gehiago sor ditzaketen enpresei.



2.10.- Proiektua: Zabortegietako hondakinen mugen kontrola

Erreferentzia : 2020-10

2.10.1.- Jarduketak

Iragan 2020ko otsailaren 6an, VERTER RECYCLING 2002, S.L. enpresak ustiatutako hondakin ez-arriskutsuen zabortegian irristatze larria gertatu zen.

Bestalde, 2020ko otsailaren 29an, CESPACONTEN, S.A. enpresak Mutiloako udal-mugartean (Gipuzkoa) duen zabortegia itxi zen, hondakinak onartzeko. Beraz, VERTER RECYCLING 2002, S.L. enpresako hondakindegira urtean 500.000 tona hondakin igortzen ziren, eta, horrez gain, urtean beste 350.000 tona eraman behar ziren; lehen tona horiek ezabatu egiten ziren aipatutako Mutiloako zabortegian biltegituta.

Hori dela eta, martxoaren 13an argitaratu zen EHAAn 2020ko martxoaren 4ko Agindua, zeinaren bidez aldi baterako premiazko neurriak ezartzen baitzaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin ez-arriskutsuen kudeatzaile eta ekoizle jakin batzuei; bertan, EAEko zabortegi baimenduen titularrei eta ekoizleei zenbait hondakin isurtzea mugatzeko neurriak ezartzen zaizkie.

Hondakinak ezabatzeko jarduera martxoaren 4ko Agindu hori betez egiten dela bermatzeko beharrezkoak diren kontrolak egiteko sortu zen proiektua; proiektu horren ondorioz, zazpi ikuskapen egin dira Industria Isurpenen Zuzentarauari lotutako hondakinak ezabatzeko instalazioetan. Zehazki, ikuskatutako instalazio horietan EAEn 2020an deuseztatutako hondakinen % 99 isuri ziren.

Lehen aipatutako ezabatze-instalazioetan bertan egindako ikuskapenez gain, bi ikuskapen egin dira hondakinak kudeatzeko instalazioetan, martxoaren 4ko Aginduan ezarritakoaren barruan.

Bestalde, agindu horren eraginpeko instalazioetako hondakinen ekoizpeneko eta kudeaketako artxibo kronologikoen hileroko ikuskapen dokumentalak egin dira, eta sei errekerimendu bidali dira hondakinak isurtzeko baimenik eskatu ez zuten aginduaren eraginpeko instalazioetara.

Azpimarratu behar da talde baimentzailearekin lankidetzan aritu garela EAEn isurketak egiteko edo EAEtik kanpo hondakinak kudeatzeko baimen-eskaeretan.

2.10.2.- Ondorioak

Proiektuaren helburua bete dela uste da, 2020ko martxoaren 4ko Agindua betetzea bermatzen duten beharrezko kontrolak egin baitira.



3. Emaitzak

Proiektuak

Proiektuaren erref.	Programatutako jarduerak	Eginda (%)
2020-01	134	% 100
2020-02	190	% 45
2020-03	3	% 100
2020-04	Kualitatiboak	% 100
2020-05	10	% 100
2020-06	Kualitatiboak	% 100
2020-07	Kualitatiboak	% 100
2020-08	Kualitatiboak	% 100
2020-09	Ez dagokio	Kualitatiboak
2020-10	Kualitatiboak	% 100

12. taula. 2020an gauzatutako ikuskapen-proiektuen betetze-mailaren laburpena

Proiektu eta ikuskapen guztiak

Proiektuaren erref.	Ikuskatutako jarduera kop.	Egindako ikuskapen kop.
2020-01	142	465
2020-02	85	85
2020-03	4	4
2020-04	0	79
2020-05	24	24
2020-06	15	15
2020-07	11	11
2020-08	7	7
2020-09	0	73
2020-10	9	9
Guztira	297	782

13. taula. Ikuskatutako jardueren eta egindako ikuskapenen laburpena



4. Ondorioak

Ingurumena Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko 2020ko Programan ezartzen zen bezala, Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzailea dira programa erabat garatzeko. Horregatik, lehentasun handieneko proiektuekin hastea proposatu da, gainerakoak aurrera eramateko baliabideen arabera. Lehentasunezko proiektu gisa, IPPC instalazioen jarraipena eta hondakinen lekualdaketa programatu ziren.

Puntu honetan adierazi behar da COVID-19ak eragindako krisi sanitarioaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua 2020ko martxoaren 14an argitaratu eta indarrean jarri izanak (67. zenbakiko BOE) eragina izan duela helburuen betetzean, besteak beste, landa-ikuskapeneko lanei ezarritako mugengatik.

Bestalde, 2019-2026 aldirako Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako Planaren 5. apartatua –Jarduerak lehenestea– ezartzen den bezala, ingurumen-eragina duten gertakarien eta istripuen abisuak, kexak eta salaketak kudeatzea lehentasunezko jardueratzat jotzen da gainerakoen aurretik. Hori dela eta, otsailaren 6an Zaldibarko Verter Recycling zaborategia irristatu egin zenean, ikuskapen-baliabide ugari esleitu zitzaizkion zaborategia hilabetetan kudeatzeari.

Zaldibarren gertatutako intzidentearen kudeaketa eta COVID-19ak ezarritako mugak kontuan hartuta, Ingurumena Ikuskatzeko eta Kontrolatzeko 2020 Programan ezarritako ia programazio osoa bete da. Ikuskapen Zerbitzua osatzen duten zortzi ikuskariak proiektuak gauzatzean lortutako betetze-maila, neurri handi batean, euren profesionaltasunari eta urteko aldi luze batean emandako aparteko dedikazioari zor zaie.